# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dosier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailak 29**

**Vitoria-Gasteiz, 29 de septiembre de 2020**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

## Hezkuntza

**HEZKUNTZA SAILAK 60 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDURIKO BEKETARAKO**

- **2020-2021 ikasturterako deialdiak 5 milioi euroan handitu du diru-kopurua**
- **%5eko kenkaria aurreikusten da, Covid-19ren eraginez egoera ekonomiko larrian izan diren familientzat**
- **Baldintzak betetzen dituen familia orok laguntza jasoko duela bermatzen du Hezkuntza Sailak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020-2021 ikasturtean unibertsitatez kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko beka eta dirulaguntzak deitzen dituen Agindua. Deialdiak 60 milioi euroko zenbatekoa du orotara.

2020-2021 ikasturterako deialdi honek 5 milioi euroko igoera du iazkoarekin alderatuta; izan ere, ikasturte honetan, berrikuntza nagusi gisa, kenkari berri bat aurreikusten du deialdiak, Covid-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz, egoera ekonomikoa larriki kaltetu zaien familientzat.

Familia horiek, zenbatutako errenta osoari %5eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute. Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetza-unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusi direnek Covid-19ren eragina pairatu dutela lan-arloan, eta justifikatu beharko da alarma-egoera indarrean izan zen garaian langabezian, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan, enplegu-erregulazioko espedienteetan edo jarduera-etenean izan direla (autonomoen kasuan azken hau), gutxienez 3 hilabetez (alarma-egoeraren iraupen bera edo handiagoa), eta diru-sarrerak murriztu direla familia-unitatean.

### Beka osagaiak

2019-2020 ikasturterako deialdi honek, honako ikasketa maila hauetarako beka eta dirulaguntzak hartzen ditu bere baitan:

- Batetik, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak burutzen ari diren ikasleak eskolatzeko bekak eta laguntzak.

Aipaturiko maila horietako ikasleei zuzenduriko bekek honako osagai hauetako bat edo zenbait har ditzakete beren baitan: kuota osagaia; irakaskuntzaren osagaia; joan-etorrietarako osagaia; ikasmaterialetarako osagaia; eta jantokiaren osagaia.

- Bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren egiten diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzatarako ere deitzen dira beka eta laguntzak. Hauen artean daude: Batxilergoa; Lanbide Heziketako zikloak; Arte plastikoak eta diseinua

(Heziketa-zikloak); Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionalak; Kirol-irakaskuntzak; Hezkuntza administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.

Ikasketa maila hauetako ikasleek eskatu ahal izango dituzten bekek osagai hauek dituzte: Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Oinarrizko bekaren osagaia; Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia; eta Zenbateko aldakorreko osagaia.

Hezkuntza Sailak bermatzen du baldintzak betetzen dituen familia orok jasoko duela laguntza ekonomikoa. Horretarako, deialdi honen diru-kopurua (60 milioi eurokoa) handitu egin daiteke, beharrezko gertatuko balitz. Era honetan, ikasle guztiek hezkuntzarako eskubidean aukera berberak izatea eta familiaren egoera ekonomikoa zailtasun gehigarri bat ez izatea ere bermatzen da.

**192.000 laguntza**

Joan zen 2019-2020 ikasturtean, 120.829 ikaslek jaso zituzten unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetarako bekak Euskadin, eta 192.063 laguntza eman ziren guztira (beka osagaiak aintzat hartuta).
Aurreko ikasturtean beka eskatu zuten ikasleei dagoeneko betetako eskaera-inprimakia emango zaie. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Hezkuntza**

## 11,4 MILIOI EURO UDAL MUSIKA IKASTEGIEN ZEIN MUSIKA IKASTEGI PRIBATUEN FINANTZIAZIORAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Euskadiko musika ikastegiak diruz laguntzea helburu duten bi agindu onartu ditu, udal ikastegiak zein pribatuak izan. Bi deialdi horiek jasotzen duten diru-kopurua 11.471.019,80 eurokoa da, orotara.

Batetik, 9.453.888,80 euroko kopurua daukan aginduak, udal titulartasuna duten musika ikastegiei zuzenduriko dirulaguntzak arautzen ditu. Ikastegi hauen artean aurkitzen dira: udal musika eskola (irakaskuntza ez arautuak eskaintzen dituzte); eta udal musika kontserbatorioak (irakaskuntza arautuak eskaintzen dituzte). Egun, ezaugarri hauetako 43 musika ikastegi daude Euskadin: 5 kontserbatorio (hauetako bik irakaskuntza arautuak zein ez arautuak ematen dituzte) eta 38 musika eskola.

Bestetik, gaur onartu den bigarren aginduak 2.017.131 euroko diru-kopurua du, eta EAEn kokaturiko musika ikastegi pribatuak diruz laguntzea du helburu. Ezaugarri hauetako 48 musika ikastegi daude egun Euskadin.

Kasu batean zein bestean, emango diren diru laguntzak 2019-2020 ikasturtean izan diren gastuak ordaintzeko izango dira. Diruz lagundu ahal izango dira ikastetxe horietako langileen kostuak (irakasle zein ez irakasleak), ekipamenduaren eta funtzionamenduaren kostuak, betiere musika-irakaskuntzarekin lotura zuzena badute.

Ikastegi hauek musika-prestakuntza praktikoa eskaintzen dute, baita musika-tresna tradizionalei dagokiena ere, eta bokazioa eta gaitasuna erakusten dituzten ikasleak ikasketa profesionaletan jarraitu ahal izateko prestatzen dituzte, eurek hala nahi izanez gero. Egiten duten lan handiaren erakusle, eskola eta kontserbatorio hauek dituzten datuak dira. Egun, 36.000 ikasle inguru ari dira Euskadin musika-prestakuntza jasotzen –arautua zein ez arautua-, gorago aipaturiko ia ehun ikastetxe horietan. Eta hauen prestakuntzaz, berriz, 1.500 irakasle baino gehiago arduratzen dira.

Gasteizko Jesus Guridi, Donostiako Francisco Escudero eta Bilboko Juan Crisostomo Arriaga musika kontserbatorioak ezin izango dira deialdi hauen onuradun izan, ikastegi hauek Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena baitute.

## Hezkuntza

### 1,7 MILIOI EURO KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEKO ETA HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du kulturartekotasuna sustatzeko programak –ikasle etorkinei zuzenduak- eta ikasle sartu berrien hizkuntza errefortzuko programak gauzatzeko dirulaguntzak deitzen dituen Agindua. Sartu berri diren ikasleei zuzenduriko hizkuntza errefortzuko programak, Euskadiko hizkuntza ofizialak ez ezagutzearekin zerikusia duten zailtasunak dituzten ikasleei zuzenduak izango dira.

Deialdi honek 1.698.000 euroko diru-kopurua du, eta Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten Euskadiko itunpeko ikastetxeei dago zuzendua. Deialdi honen helburua da, 2020-2021 ikasturtean aipaturiko programa horiek martxan jartzeak eragiten dituen exekuzio nahiz pertsonal gastuak finantzatzea.

Kulturartekotasuna sustatzeko programak, besteak beste, ikastetxean, ikasgeletan edo erabiltzen diren material eta baliabideetan eskola-komunitatea osatzen duten kulturak presente egon daitezen arduratuko dira, protagonisten beren ekarpena bereziki baloratuz. Jarduera oro ikuspegi inklusibo batetik proposatuko da, hau da, ikastetxearen ekintza-plan baten barruan, ikasle eta irakasle guztientzat, beste eragile batzuek ere (familiek, gizarte-taldeek) parte har dezaten eta lagun dezaten, eta eskola-errendimendua eta -arrakasta hobetzeko helburu orokorrari lotuta.

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituzten itunpeko ikastetxeek honako dokumentazio honekin aurkeztu beharko dute eskaera, hilabeteko epean:

-Hizkuntza indartzeko programatarako, ikastetxeak ezarri asmo duen hizkuntza indartzeko programaren deskribapena, honako hauek zehaztuz: programan arituko diren irakasle espezializatuak eta haien arduraldiaren ehunekoa, parte hartuko duen ikasle kopurua, eta programazio didaktikoa, burutuko diren jarduera didaktikoak eta ebaluazio irizpideak azalduz.

-Kulturartekotasuna sustatzeko programatarako, ikastetxeak ezarriko duen programaren deskribapena, honako hauek zehaztuz: programan arituko diren irakasle espezializatuak, ikasturterako proposatutako helburuak, jarduerak eta beren egutegia edo lorpenen adierazleak, besteak beste.

Joan zen 2019-2020 ikasturtean Hezkuntza Sailak itunpeko 124 ikastetxetan lagundu zuen diruz gisa honetako programak garatzen. Orotara, 2.100 ikasletik gora izan ziren programa horien onuradun.

**Hezkuntza**

## 1,52 MILIOI EURO GAILU DIGITALAK EROSTEKO FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2020-2021 ikasturtean gailu digitalak erosteko dirulaguntzak deitzen dituen agindua. Gailu horiek Euskadiko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabiliko dituzte ikasgeletan. Deialdi honek 1.528.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, 2020-2021 ikasturte honetan Sare_Hezkuntza Gelan sarean dauden ikastetxe publiko edo itunpekoetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa ikasten ari diren ikasleek; ikasle horiek beka baten onuradun izan beharko dute, ikas-materialaren osagaian, 2019-2020ko ikasturteko beka-deialdian.

Gainera, diru-laguntza eskuratu ahal izateko, eskuratu duten gailu digitalak bat etorri beharko du ikastetxeak eskatzailearen talde guztiarentzat aukeratu duenarekin, beti ere Aginduak zehazten dituen ezaugarri teknikoak betez (pantailaren tamaina, memoria gaitasuna eta sistema eragileari dagozkion ezaugarriak). Gailuak 2019ko urrilaren 3tik aurrera eskuratua beharko du izan. Ikasle bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 200 eurokoa izango da gailua erosteko.

Joan zen 2019-2020 ikasturtean, Euskadiko 7.149 familia izan ziren onuradun eskolarako gailu digitala erosterakoan, Hezkuntza Sailaren iazko deialdiaren bidez.

**Sare_Hezkuntza Gelan**

Sare_Hezkuntza Gelan proiektuak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesurako material eta baliabide digitalak sortzea bultzatzen du, bai eta horiek ikasgelan erabiltzea ere, hori guztia gauzatu ahal izateko beharrezko den formazio teknologiko eta pedagogikoa ematearekin batera.

Sare_Hezkuntza Gelan proiektuak bi ikasturteko iraupena du. Hortaz, programan parte hartzen duten ikastetxeek hezkuntza digitalaren eredua dagokion zikloaren hasieratik amaierara arte eskaintzen dute, dela Lehen Hezkuntzan, DBHn edo Batxilergoan. Hautatutako ikastetxe berriek eta aurreragoko deialdietan hautatuak izan zirenek Sare_Hezkuntza Gelan sarea osatzen dute. Ikastetxe hauek unitate didaktiko bat edo gehiago irakasten dituzte modalitate digitalean, zenbait arlo edo ikasgaitan, horretarako hautatzen dituzten kurtsoetako talde guztietan.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## GIZA ESKUBIDEEN RENÉ CASSIN SARIAREN DEIALDIA EGIN DUTE

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du René Cassin sariaren aurtengo deialdia egitea. Sari hori Jaurlaritzak ematen du Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez.

Sari horren helburua da publikoki goraipatu eta saritzea ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin gure gizartean giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak eta taldeak.

12.000 euroko diru-zenbatekoak eta ohorezko aipamen batek osatuko dute saria eta alor horretan nabarmentzen diren pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuek jaso dezakete saria.

Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean kontatzen hasita.

Saria Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 2003an eta Rene Cassin jaunaren oroimenez ezarri zen sariaren izena. René Cassin Baionan 1887an jaiotako legelari eta epaile bat izan zen, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inspiratzaile nagusia izan zena 1948an, eta 1968an Bakearen Nobel saria eman zioten; Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutua sortzeko baliatu zuen Nobel saria.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK EUSKARALDIAREN BIGARREN EDIZIOAREKIN BAT EGIN DU ETA EUSKARAZ JARDUTEKO '*ARIGUNE*AK' SORTUKO DITU

- **Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartuko du eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko urrats berriak ematen lagunduko du**
- **Jaurlaritzako sail bakoitzak sortuko ditu bere dinamikak eta langileen aktibazioa eta inplikazioa bilatuko du**

Gaurko Gobernu Kontseiluak onartu duenez, Eusko Jaurlaritzak Euskaraldiaren bigarren edizioarekin bat egingo du. Eusko Jaurlaritzak, ekimenaren sustatzailea izanik, hasiera-hasieratik bat egin du ekimen honekin eta interesgarritzat eta beharrezkotzat jotzen du oraingoan ere parte hartzea. Horrela, hizkuntza ohiturak aldatzeko urrats berriak eman eta langileen eta kideen parte-hartzea sustatzen eta babesten lagunduko du beste behin. Azaroaren 20tik abenduaren ~~0~~4ra ospatuko den ariketa sozial honetan parte hartuko duten entitateetako bat izango da Eusko Jaurlaritza. Horretarako *ariguneak*, euskaraz lasai aritzeko guneak, sortuko ditu. Talde hauetako kideek *ahobizi* eta *belarriprest* modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute *ariguneetan*.

Eusko Jaurlaritzak *arigune* izateko barnerako zein kalerako lana egingo du. Kanpora begira jendaurreko zerbitzuetan eta jendaurreko lanpostuetan Euskaraldiak irauten duen 15 egunetan *ariguneen* bereizgarriarekin identifikatu eta egun horietarako bereziki jarraibide batzuk jasoko dituzte. Kontutan izan behar da herritarraren hizkuntza hautua beti errespetatzen duten eremuak direla. Barnera begira, Eusko Jaurlaritzaren baitan dinamika propioa duten eta kide guztiek euskara ulertzen duten taldeak edo '*ariguneak*' sortuko dira. Askotarikoak izan daitezke: administrazio atalak, ordezkaritzak, lantaldeak...

2020ko Euskaraldian Jaurlaritzako sail bakoitzak zein haiei egotzitako erakunde autonomoek, bere dinamika propioa sortu beharko dute. Eusko Jaurlaritzak Euskaraldian izena emateak honako hau dakar:

1. Euskaraldiaren proposamena aztertzea eta prozesuan sartzeko erabakia hartzea.
2. Arigune izan daitezkeen taldeak identifikatzea.
3. Ariketa egitea adostea, ariguneetako kideekin.
4. Sailek/erakunde autonomoek ariketan izena ematea.
5. Hizkuntza-ohituren aldaketa eta ariketa gauzatzea posible izan daitezen neurriak hartzea: besteak beste, saio formatiboak eta informatiboak eskaintzea.
6. Ariketa egitea, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra
7. Ariketaren balorazioa egitea, aurrera begira jarrita.

**2018ko edizioa**

Duela bi urte, 2018an, egin zen Euskaraldiaren lehen edizioa “11 egun euskaraz” lemapean. Arrakastatsua izan zen eta aurreikuspenak gainditu zituen. Hamaika egunez euskararen eremu osoko 400 udalerrik, 200 sustatzaile orokorrek eta 225.000 *ahobizi* eta *belarriprestek* parte hartu zuten. Guztien arteko lankidetzari esker, ahalbidetu zen inertziak apurtzea, hizkuntza-ohituren inguruko hausnarketa bat eragitea, herritar askoren hizkuntza portaerak aldatzea eta, oro har, hiztunak aktibatzea.

Bigarren edizioa luzeagoa izango da, 15 egunekoa, eta aurreko edizioan bezala izena ematen dutenek bi rol izango dituzte aukeran:

- ***Belarriprest***: Beraiei euskaraz hitz egiteko eskatzen dutenak dira *belarriprest*, euskara ulertzen dute eta beraiekin euskaraz aritzea nahi dute. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.
- ***Ahobizi*:** Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute *ahobiziek*. Beraien lehen hitza, beti, euskaraz izango da. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da, jokaerak definitzen du rola.

## Educación

**EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 60 MILLONES DE EUROS PARA BECAS DEL ALUMNADO DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS**

- **La convocatoria para el curso 2020-2021 aumenta su cuantía en 5 millones de euros**
- **Contempla una deducción del 5% para las familias cuya situación económica se haya visto afectada por la Covid-19**
- **El Departamento de Educación garantiza que obtendrán ayuda económica todas las familias que cumplan los requisitos**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2020-2021.

Con un importe global de 60 millones de euros, esta convocatoria para el curso 2020-2021 suma 5 millones más en relación a la convocatoria del pasado año, ya que, como principal novedad, este curso se contempla una deducción a las familias cuya situación económica se haya visto gravemente afectada por la crisis sanitaria ocasionada por la Covid-19.

Estas familias tendrán derecho a la aplicación de una deducción del 5% sobre la renta total computada. Para ello, se deberá acreditar que las personas sustentadoras económicas principales de la unidad convivencial se han visto afectadas laboralmente por la Covid-19, y justificar que durante el estado de alarma han estado en paro, ERTE, ERE o con cierre de actividad en el caso de las personas autónomas, durante un mínimo de 3 meses (duración igual o superior al estado de alarma), y se ha producido una disminución de ingresos en la unidad familiar.

**Componentes de beca**

La convocatoria para este curso 2020-2021 incluye becas y ayudas para los siguientes niveles educativos:

- Por una parte, becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, y Enseñanzas elementales de Música y Danza.

Las becas dirigidas al alumnado de los citados niveles de escolarización pueden comprender uno o varios de los siguientes componentes: componente de cuota; de enseñanza; de desplazamiento; de material escolar; y de comedor.

- Por otra parte, también se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles de Enseñanzas Postobligatorias no

universitarias. Entre éstas se encuentran las siguientes enseñanzas: Bachillerato; Ciclos de Formación Profesional; Artes plásticas y diseño (Ciclos Formativos); Enseñanzas profesionales de música y danza; Enseñanzas deportiva; Enseñanzas de idiomas en escuelas oficiales de titularidad de la administración educativa.

Los componentes de beca que podrá solicitar el alumnado de estas enseñanzas postobligatorias son las siguientes: Componente de cuantía fija ligada a la renta del solicitante; Componente de cuantía fija ligada a la residencia del solicitante durante el curso; Componente de beca básica; Componente de cuantía fija ligada a la excelencia en el rendimiento académico; y Componente de cuantía variable.
El Departamento de Educación garantiza que obtendrán la ayuda económica todas las familias que cumplan los requisitos. Para ello, el importe de esta convocatoria (60 millones de euros) podría ser incrementado en el caso de que fuera necesario, garantizando de esta manera la igualdad de oportunidades de todo el alumnado en el acceso a la educación, sin que la situación económica familiar constituya una dificultad añadida.

**192.000 ayudas concedidas**

Un total de 120.829 alumnos y alumnas fueron beneficiarias de estas becas para los niveles educativos no universitarios el pasado curso 2019-2020, con un total de 192.063 ayudas concedidas (en diversos componenetes de beca)
Al alumnado que ya solicitó beca el curso pasado se le facilitará el formulario ya cumplimentado. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a partir del día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV.

## Educación

### 11,4 MILLONES DE EUROS PARA LA FINANCIACIÓN DE CENTROS DE ENSEÑANZAS MUSICALES MUNICIPALES O PRIVADOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, dos órdenes por las que se convocan subvenciones destinadas al sostenimiento de centros de enseñanzas musicales, tanto de titularidad municipal como privados. El importe total de ambas órdenes asciende a 11.471.019,80 euros.

Por una parte, con un importe de 9.453.888,80 euros, una de las dos convocatorias hoy aprobada se ocupa de las subvenciones dirigidas a los centros de enseñanzas musicales de titularidad municipal. Entre estas se encuentran las escuelas de música de titularidad municipal –que imparten enseñanzas no regladas- y los conservatorios de música de titularidad municipal, que imparten enseñanzas regladas. En la actualidad hay en Euskadi 43 centros de enseñanzas musicales de estas características (titularidad municipal): 5 conservatorios (2 de ellos imparten tanto enseñanza reglada y como no reglada) y 38 escuelas de música.

Por otra parte, la segunda de las convocatorias hoy aprobada cuenta con un importe económico de 2.017.131 euros, y tiene como objeto la concesión de subvenciones a centros privados de enseñanzas musicales ubicados en la CAPV. En la actualidad, hay en Euskadi 48 centros de estas características.
En ambos casos, las subvenciones concedidas a estos centros se destinarán a sufragar los costes referidos al curso académico 2019-2020. Serán gastos subvencionables los costes de personal (docente y no docente), equipamiento y funcionamiento de estos centros, para aquello que esté relacionado directamente con la docencia de la enseñanza musical.

Estos centros ofrecen una formación práctica en música, incluida la de raíz tradicional, y preparan para los estudios profesionales al alumnado que así lo desea y demuestra una especial vocación y aptitud. Muestra de la dimensión de la labor que realizan, son los datos que arrojan estas escuelas y conservatorios. En la actualidad reciben formación musical en Euskadi –sea reglada o no reglada- cerca de 36.000 alumnos y alumnas en casi un centenar de centros de enseñanza objeto de estas subvenciones. Se ocupan de su formación más de 1.500 docentes.

Los conservatorios de música Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz, Francisco Escudero de San Sebastián y Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao no podrán ser beneficiarios de estas convocatorias, al tratarse de centros de gestión directa del Departamento de Educación.

## Educación

**1,7 MILLONES DE EUROS PARA PROGRAMAS DE FOMENTO DE LA INTERCULTURALIDAD Y EL REFUERZO LINGÜÍSTICO**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del Consejero de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones para la ejecución de programas de promoción de interculturalidad dirigidos al alumnado inmigrante y de programas de refuerzo lingüístico del alumnado de reciente incorporación que presente dificultades comunicativas importantes relacionadas con el desconocimiento de las lenguas oficiales de Euskadi, y que requiera un plan de refuerzo lingüístico.

Esta convocatoria, con un importe global de 1.698.000 euros, se dirige a centros de enseñanza concertados que impartan Educación Primaria o Educación Secundaria Obligatoria. El objeto de esta convocatoria es la de financiar los gastos de ejecución y de personal, derivados de la implantación de los citados programas durante el curso 2020-2021.

Los programas para la promoción de la interculturalidad trabajarán, entre otras funciones, para que se hagan presentes en el centro, en las aulas o en los materiales y recursos que se utilizan las distintas culturas que conforman la comunidad escolar, valorando especialmente la contribución de los y las propias protagonistas. Toda actividad se propondrá desde una óptica inclusiva, es decir, enmarcada en un plan de acción del centro, dirigida a todo el alumnado y al profesorado, abierta a la participación y colaboración de otros agentes (familiares, grupos sociales), y conectada al objetivo general de la mejora del rendimiento y éxito escolares.

Los centros interesados en recibir estas subvenciones deberán presentar solicitud con la siguiente documentación:

-Para los programas de refuerzo lingüístico: descripción del programa de refuerzo lingüístico que implanta el centro, indicando el profesorado especializado que se implicará en él y su porcentaje de dedicación, número de alumnos y alumnas participantes, así como la programación didáctica, incluyendo, entre otros, actividades didácticas y criterios de evaluación.

-Para los programas de promoción de la interculturalidad: descripción del programa que implanta el centro, señalando el profesorado especializado que se implicará en él, objetivos propuestos para el curso, actividades propuestas y su temporalización o indicadores de logro, entre otros.
El pasado curso 2019-2020, el Departamento de Educación del Gobierno Vasco subvencionó mediante esta convocatoria programas de esta índole desarrollados en 124 centros concertados, y en los que fueron directamente beneficiados más de 2.100 alumnos y alumnas.

## Educación

### 1,52 MILLONES DE EUROS EN SUBVENCIONES A LAS FAMILIAS PARA LA ADQUISICIÓN DE DISPOSITIVOS DIGITALES

El Consejo de Gobierno a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado en su reunión de hoy, la Orden por la que se convocan subvenciones para la adquisición de dispositivos digitales en el curso académico 2020-2021, para su utilización en el aula por el alumnado que curse Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato en centros docentes de Euskadi. Esta convocatoria cuenta con un importe global de 1.528.000 euros.

Podrá acogerse a esta convocatoria el alumnado que en el curso académico 2020-2021 curse Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria o Bachillerato, tanto en centros docentes públicos como concertados del País Vasco, incluidos en la red Sare_Hezkuntza Gelan, y que haya sido beneficiario de una beca en el componente de material escolar durante el curso 2018-2019. Queda excluido de la convocatoria el alumnado que haya sido beneficiario de esta subvención en la convocatoria precedente.

Además, el dispositivo digital por el que se solicita la ayuda económica se deberá corresponder con aquel por el que haya optado el centro para todo el grupo del solicitante, cumpliendo siempre con las características técnicas expresadas en la convocatoria (características relativas al tamaño de pantalla, memoria interna o sistema operativo, entre otras) y deberá haber sido adquirido a partir del 3 de octubre de 2019. La cuantía de la ayuda para la compra del dispositivo será de hasta un máximo de 200 euros por alumno o alumna.

El pasado curso 2019-2020, un total de 7.149 familias vascas fueron beneficiarias de estas ayudas para la compra de dispositivos digitales, a través de la anterior convocatoria del Departamento de Educación.

**Sare_Hezkuntza Gelan**

El proyecto de innovación educativa Sare_Hezkuntza Gelan impulsa la elaboración de materiales y recursos digitales en el proceso de enseñanza-aprendizaje, su utilización en el aula, además de facilitar la formación tecnológica y pedagógica necesaria para llevarlo a cabo.

El proyecto Sare_Hezkuntza Gelan tiene una duración de dos años académicos, por lo que los centros que participan en él ofertan el modelo de enseñanza digital desde el inicio hasta el final del ciclo correspondiente, sea en Educación Primaria, Secundaria Obligatoria o Bachillerato. Todos los centros seleccionados en las diversas convocatorias forman parte de la Red Sare_Hezkuntza Gelan. Estos centros imparten en la modalidad digital una o varias unidades didácticas en las distintas áreas o materias, en todos los grupos de los cursos que seleccionen para el proyecto.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## CONVOCADO EL PREMIO *RENÉ CASSIN* DE DERECHOS HUMANOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria para este año del Premio *René Cassin que* concede el Ejecutivo vasco, a través de la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.

El objetivo de este premio es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que, a través de su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los derechos humanos en nuestra sociedad.

Podrán optar a este premio, dotado con 12.000 euros y una distinción honorífica, todas aquellas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se destaquen en este ámbito.

El plazo de presentación de las candidaturas es de un mes, a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

El premio fue creado por el Gobierno Vasco en 2003 y debe su nombre a René Cassin, jurista y juez nacido en Bayona en 1887, considerado como el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y merecedor en 1968 del Nobel de la Paz, premio que consagró a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO SE ADHIERE A LA SEGUNDA EDICIÓN DE EUSKARALDIA Y CREARÁ '*ARIGUNES*' PARA HABLAR EN EUSKERA

- **El Ejecutivo vasco participará activamente y contribuirá a que se avance en el cambio de los hábitos lingüísticos**
- **Cada departamento gubernamental definirá sus propias dinámicas y buscará la activación e implicación de su plantilla**

Tal y como ha aprobado el Consejo de Gobierno en su sesión de hoy, el Gobierno Vasco se adherirá a la segunda edición de Euskaraldia. El Ejecutivo vasco, como promotor de la iniciativa, la ha apoyado desde el mismo comienzo y considera interesante y necesario participar en esta nueva edición. Así, contribuirá, una vez más, al cambio en los hábitos lingüísticos y promoverá y apoyará la participación de sus integrantes y plantilla. El Gobierno Vasco será una de las entidades participantes en este ejercicio social que tendrá lugar entre el 20 de noviembre y el 4 de diciembre. Al efecto creará *arigunes*, entornos para poder hablar en euskera tranquilamente. Los integrantes de dichos colectivos podrán participar como *ahobizi* o *belarriprest* en los quince días que durará Euskaraldia; y podrán participar como colectivo en los *arigunes.*

El Gobierno Vasco llevará a cabo un trabajo tanto interno como externo para poder ejercer como *arigune*. El externo consistirá en identificar como *arigune* los servicios y puestos de trabajo de atención al público durante los 15 días que durará Euskaraldia; y en dictar directrices específicas para esas fechas. Hay que tener en cuenta que son ámbitos que siempre respetan la elección lingüística de la ciudadanía. En el trabajo interno se crearán '*arigunes´* o grupos con dinámica propia dentro del Gobierno Vasco, en los que toda plantilla entenderá el euskera. Pueden ser muy diversos: secciones administrativas, delegaciones, ponencias…

En Euskaraldia 2020 cada departamento del Gobierno, así como los entes autónomos dependientes de los mismos, deberá definir su propia dinámica. Las implicaciones derivadas de la participación del Gobierno Vasco en Euskaraldia son las siguientes:

1. Análisis de la propuesta de Euskaraldia y decisión de participar en el proceso.
2. Identificar los grupos que puedan constituir arigunes.
3. Acordar la participación en el ejercicio con los integrantes de los arigunes.
4. Inscripción de departamentos/entes autónomos en el ejercicio.
5. Adopción de medidas que hagan posible el desarrollo del ejercicio y el cambio en los hábitos lingüísticos: por ejemplo, ofrecer sesiones formativas e informativas.
6. Participación en el ejercicio del 20 de noviembre al 4 de diciembre.
7. Hacer una valoración del ejercicio, de cara al futuro.

**Edición de 2018**

La primera edición de Euskaraldia tuvo lugar hace dos años, en 2018, bajo el lema "11 egun euskaraz". Logró un gran éxito y superó todas las expectativas. Durante once días, participaron 400 municipios, 200 entidades promotoras generales y 225.000 *ahobizi* y *belarriprest* de todo el ámbito del euskera. Gracias a la aportación de todos ellos fue posible romper inercias, iniciar una reflexión en torno a los hábitos lingüísticos, cambiar los hábitos lingüísticos de muchas ciudadanas y ciudadanos y, en general, activar hablantes.

La segunda edición será más larga, de 15 días y al igual que en la pasada edición, las personas participantes podrán elegir entre dos roles:

- ***Belarriprest***: son personas que piden que se les hable en euskera, entienden el euskera y quieren que se les hable en euskera. La clave está en la actitud, no en la competencia.
- ***Ahobizi*:** Personas que se dirigirán en euskera a todas las personas que lo entiendan. Su primera palabra será siempre en euskera. La clave consiste en hablar en euskera siempre que sea posible; la actitud es la que define el rol.